

## ZATOZ, ESPIRITU SANTUA

1

Ez dakit ezer, ezer ez dakit,  
Oi Espiritu Gorena!  
Goiko ixuriz lagun zakidaz,  
argitu nire barrena.  
Zeuk esaidazu Zeu nor zaitudan  
ta ni Zuretzat naizena,  
nik ez dakit eta Zeuk esan  
nigan:  
“Abba-Aitatxo” izena.

2

Ez daiket ezer, zer ez daiket,  
Oi Jainkoaren Indarra!  
Noiznahi ezinak ta nunahi mugak,  
*ezin dot* esan beharra.  
Aitaren Arnas, haize indartsu,  
bizi barriko sugarra,  
Espiritua, Zeu zara nigan  
dana daikezun bakarra.

3

Ez daukat ezer, ezer ez daukat,  
Oi dohai danen Iturri!  
Hautsa ta hutsa, besterik ez naz,  
beti zerbaiten egarri.  
Zeuretzat egin ninduzun eta  
Zeu zakidaz asegarri,  
goi-ondasun ta dohaisetara  
Zeuk naizula erakarri.

4

Ez dakust ezer, ezer ez dakust,  
Oi Espiritu argitsu!  
Beheko gauzetan jakintsu, baina  
goiko gaietan naz itsu.  
Galduta nabil noraezean  
arren, argitu nagizu,  
zer dan egia ta zer dan ona  
Zeuk bakarrik bai dakizu.

5

Ez dantzut ezer, ezer ez dantzut,  
Oi Espiritu isila!  
Kanpo ta barru gau eta egun  
etenbako iskanbila.  
Zatoz ta zurtu sorgor daukadan  
entzumen entzungor, hila;  
nitzat ezina Zuk ahal dozu ta  
Zutaz egarri nadila.

6

Ez naz ezer ni, ni ez naz ezer,  
Oi Espiritu Jainkoa!  
Zeuretzat dozu ta bete eizu  
Zeuk nire bihotz-hondoa.  
Zu ez bestek ni ezin bete nau  
eta Zugaz dot nahikoa,  
Zeuk landu eta burutu eizu  
Zeuk nigan hasitakoa.

A. Martzel